

www.freemaths.fr

BACCALAURÉAT SUJET

Bac **LLCER, Basque**



ANTILLES-GUYANE
2026

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL

ÉPREUVE D'ENSEIGNEMENT DE SPÉCIALITÉ

SESSION 2026

LANGUES, LITTÉRATURES ET CULTURES ÉTRANGÈRES ET RÉGIONALES BASQUE

Mercredi 17 juin 2026

Durée de l'épreuve : **3 heures 30**

Coefficient : **16**

*L'usage du dictionnaire unilingue non encyclopédique est autorisé.
La calculatrice n'est pas autorisée.*

Dès que ce sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 9 pages numérotées de 1/9 à 9/9.

**Le candidat traite au choix le sujet 1 ou le sujet 2.
Il précisera sur la copie le numéro du sujet choisi.**

Répartition des points

1^{ère} partie : Synthèse	16 points
2^{ème} partie : Traduction ou transposition	4 points

Sujet 1

Thématique : « Expression de l'amour »

Axe d'étude : « L'attachement à la culture et à la langue »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigerez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Aipa itzazu euskararen inguruko sentimendu ezberdinak.
2. Erakuts ezazu arteak, literaturak eta hizkuntzarekiko atxikimenduak nola elkar elikatzen duten.
3. Zerk ahalbidetu eta ahalbidetzen du hizkuntzaren biziraupena?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du document 2 page 4/9 depuis la ligne 5 « *Hala, Tartean Teatroak...* » jusqu'à la ligne 10 « *...kontatu ezin dudana* » :

« *Hala, Tartean Teatroak asteartean emanen duen Ghero antzezlanaren testuingurua. Euskara batuaren 50. urteurrena baita aurten, eta akademiaren ehungarrena, Euskaltzaindiarekin elkarlanean sortu da obra. "Ospitale batean azken euskalduna dago", segitu du Martinezek; "korapilo neurologiko batengatik edo, bakarrik geratu zaio bere ama hizkuntza: euskara. Harremana badauka mediku batekin, eta harreman horretan gertatzen da zer edo zer kontatu ezin dudana".* »

Autoz dabilta hiru lagun, Jean Etxepare autorearen barne. Nafarroatik Gipuzkoarako bidean gelditzen dira, hiru haur eta adineko emazte bat ikusi ondotik. Autotik jausten dira, bazkaltzeko asmoz.

Eskuaraz gogotik, lorietan, dauku erantzuten emazte xaharrak; solas guti haatik: ihardesteko baizik ez. Asko xehetasunen artetik, hau badatxikogu gogoan: ez girela lehenbizikoak, oihan hartan ikusten gituenak; udan noiz-nahi baratzen direla han donostiar familiak, gu bezala lurrean bazkariteko. [...]

- 5 Biziki garbiki, ederki kasik, mintzo zaiku eskuaraz emazte gaixoa; ez du arras Gipuzkoako mintzaia, ez Baigorri-aldekoa, ez Lapurdikoa halere ezin xuxenago heltzen daukute adimenerat mihiak, ezpainen, jabearen gogo-erabakia. *Haurrak, jan zazue bada pastiza hori, huna oraino gainera tuaxa¹ eta madari batzu*, diozte ene aldekoak, eskuaraz, bi nexka maitagarriak eta muttiko pollitari, udareak eskainiz. Bat ez da hiruetarik kantitzen; 10 eskuetan dauzkate tinki madari, tuaxa eta pastiza. Gu harrituak, haurño heien begiratuaz. Orduan amaxok:

- Erdaraz mintza zaizkiote. Ez dakite eskuara.
- Eskuara ez dakitela! Nolaz bada hori? Zuk badakizu ontsa bizkitartean!
- Nik, ba.
- 15 — Ama da, orduan, ez dakikena?
- Ama ene alaba dute. Badaki eskuara ene alabak.
- Aita beraz, ez dakikena batere?
- Aitak ere badaki ba, haratxagoko herri batetakoa da-ta, Iruñ'alde.
- Eta hurrek ez dakitela eskuararik batere!?

- 20 Burua inharrosiz, amaxok adiarazten dauku ezetz, ez dakitela hurrek eskuara-hitzik. Axola handirik baduela ez du haatik iduri, ez da kexu, etzaizko den-gutienik gorritzen mathelak. Ixildua orai, behakoa ximixtan derabila gure dafailako ondarretan gaindi. *Comed²*, diote³ azkenean erraiten bere haurtxoer, eta hok ausikiño bat doidoi pudding⁴-xerrari, garaitikoa oso beiratzten dutelarik *Para la mamá*.⁵ Bagaude behin gure aldetik, ez jakin zer 25 asma, zer erran ez jakin.

Jean Etxepare, *Beribilez*, moldatua, 1931.

¹ Mertzika

² « Jan ezazue » gazteleraz.

³ Die

⁴ Deserta bat

⁵ « Amarentzat » gazteleraz.

Azken euskalduna oholtzan

Tartean taldeak Patxo Telleriaren 'Ghero' antzerkia emanen du asteartean, 14:30ean, Baionako antzokian. Hitzunek euskara iraunarazteko ukan duten gaitasuna du aipu.

Izenak dioen bezala, istorioa etorkizunean gertatzen da. Hemendik kasik mila urtera. "3000. urtean gaude. Ez dago euskararik, ez dago erdararik; hizkuntza bakarra dago, hizkuntza orokorra: esperanto¹ moduko bat", esplikatu du Mikel Martinez antzezleak. Baina, azken euskaldun bat bada, zakutik edo zorrotik iraun duena, ospitalean, hilzorian bezala.

5 Hala, Tartean Teatroak asteartean emanen duen *Ghero* antzezlanaren testuingurua. Euskara batuaren 50. urteurrena baita aurten, eta akademiaren ehungarrena, Euskaltzaindiarekin elkarlanean sortu da obra. "Ospitale batean azken euskalduna dago", segitu du Martinezek; "korapilo neurologiko batengatik edo, bakarrik geratu zaio bere ama hizkuntza: euskara. Harremana badauka mediku batekin, eta harreman horretan gertatzen
10 da zer edo zer kontatu ezin dudana". Misterioa utzirik, antzerkiak badu hari bat, eta partikularki jorratu nahi duen historia bat. "Antzezlanak badauka egoera bat, poliki-poliki korapilatu egiten dena eta azkenean amaitzen dena. Horrek indarra dauka, baina aitzakia da beste gauza batzuei buruz hitz egiteko: euskarari buruz. Hizkuntza txikiek, konkretuki euskarak eduki duen indarra gain bizitzeko". Delako azken euskaldun horrek dakar
15 kontakizuna. "Medikuarekin daukan harremanean hainbeste istorio kontatzen baitizkio euskararen ingurukoak. Orduan, joaten gara erromatarren garaira, joaten gara Frantziako Iraultzaren garaira, edo euskaldunak XVI. mendean Ternuan baleak ehizatzen ibili zirenekora. Salto batzuk egiten dira denboran".

Agerraldiak orotarikoak pentsatu dituzte. "Eszena bakoitza oso tonu ezberdinekoa
20 da. Batzuk barregarriak dira; beste batzuk, hunkigarriagoak. Eta istorio guztiak lotzen dituen ardatza da: hizkuntzen indarra, hitzunengan daukaten indarra, eta zergatik euskara mantendu duten". Koldo Mitxelena filologo ezagunaren erranaldi famatua bada hor gibelean. "Mundu guztiak dio euskara pre-indoeuroparra dela, ez dakiguna nondik datorren, hainbeste urte daukana, eta horrela... Marabilla² hori baino harrigarriagoa dena da nola
25 iraun duen euskarak, hainbeste gauza kontra eduki arren. Nolabait, horri goraipamen bat bezala egiten diogu".

Euskarari, eta beste hizkuntzei. Parrasta bat entzuten baitira taula gainean, gehiago mintzo ez diren latina eta Ternuako miq-mackera, konparazione. "Erabiltzen ditugu hamabi hizkuntza edo. Halere, ikusleak hizkuntza hori ezagutu gabe ulertzen du zer gertatzen den.
30 Truko teatral ezberdinak erabili ditugu jendeak uler dezan. Eta, gainera, egoera bat berez ulertzen ez den hizkuntza batean ulertzeak ere teatralitatea ematen dio".

Iñaki Etxeleku, "Azken euskalduna oholtzan", *Iparraldeko hitza*, 2019.

¹ XX. mendean asmatua izan zen nazioarteko hizkuntza

² Gauza miresgarria



Testua : *“Martxa honetan aurki¹ erderaz egingo dugu euskaraz ari garelakoan”*

Nexgraff, Aitor Otaño , Lazkao Txiki murala, Ordizia, 2021.

¹ Laster, sarri.
26-LLCERBAME1

Sujet 2

Thématique : « Engagement et développement durable »

Axe d'étude : « La recherche de l'équilibre »

1^{ère} partie : Synthèse en basque (16 points)

Après avoir pris connaissance des documents qui composent ce dossier, vous rédigerez en langue basque une synthèse en 500 mots environ en prenant appui, si vous le souhaitez, sur les pistes de réflexion suivantes :

1. Erakuts ezazu zer ekimen plantan ezarriak diren garapen iraunkorrari buruz joateko.
2. Zer dira oreka baten lortzeko zailtasunak edo desafioak?
3. Nola lot ote daitezke ekimen lokalak mundu mailako gogoetekin?

2^{ème} partie : Traduction en français (4 points)

Traduire l'extrait suivant du document 1 page 7/9 depuis la ligne 1 « *Ardura ...* » jusqu'à la ligne 7 « *... ilargiaren argitan* » :

« Ardura igandez noa. Jaiki eta etxe-kideak esnatu gabe eskapatzera helduz geroz joan naiteke larunbatez ere.

Egunsentian baratzerainoko bidea oinez egiten dut, izar-ihintzez busti xendra belartsuan gaindi, baratze kolektiboraino. Hortxe, oihan bazterrean kaustitzen da Eden-a, haritzondo ikaragarrien maldan eta berriki landatu fruitu arbolondoen artean, hesi garbiz babestu paradisu zatia. Gauak besarkatzen du dena, ez luzaroko, eta doi-doiatarik igartzen dira lekuak, lanbro artetik, oraindik maisu den ilargiaren argitan. »

Baratze bat

Ardura igandez noa. Jaiki eta etxe-kideak esnatu gabe eskapatzera helduz geroz joan naiteke larunbatez ere.

5 Egunsentian baratzerainoko bidea oinez egiten dut, izar-ihintzez¹ busti xendra belartsuan gaindi, baratze kolektiboraino. Hortxe, oihan bazterrean kausitzen da Eden-a, haritzondo ikaragarrien maldan eta berriki landatu fruitu arbolondoen artean, hesi garbiz babestu paradisu zatia. Gauak besarkatzen du dena, ez luzaroko, eta doi-doiatarik igartzen dira lekuak, lanbro artetik, oraindik maisu den ilargiaren argitan. Hiri bazterretako baratze kolektiboena azken modakoa da, helburua biztanleen arteko kohesioa eta izadiaren ustiapen neurtuaren bideratzea dutela, beste batzuentzat, sinpleki, abusagarria² da, oroz gainetik baduelako Kolkhoz-etik zerbait eta amestera uzten baikaitu, hogei urte genituenean nola, mundua alda genezakeela, sistema enpoildu³ eta antolaketa libertarioan gara gaitzkeela.

15 Aterpea denena da eta han pruntki lerrokaturik daude denen tresnak, sarde, aitzur eta niretzat izen eta funtzio oraindik sekretuetako zenbait gauza, bakoitzak txandaka erabiltzekoak. Zeingehiagokan sartuak dirudite lur alor tipiek, familiako bana, fizela txirikordaz zedarrituak. Giro gozoa nagusi, auzo artekoa, elkartasunezkoa, elkarrengandik ikastekoa. Alabaina, denak baratzezain hasiberriak, nehork ez du sekulakoa ateratzeko asmorik, galdetzen diogun gauza bakarra da zerbaixka eskaintzea, egin indarren truk. Denbora-pasako aitzakia da eta mundu nahasi nahasgarritik ihes egitekoa, eta bide batez 20 ekartzen du auzoko jende zenbaitekin trukatzeko, bergizarteratzea hots, hostoak hazten begiratzeko tarteak ukaitez gain, denbora iheskor aluarengatik libreago. Lurra, elkartasuna, indarra eta saria, abusatzea⁴: maila bat baino gehiagotan zoriona eragiteko tresna.

[...]

25 Egun bakoitzak dakar berea: aitzineko astean landatu lorea errotu dela dirudi, aurrekoan baino kementsuago baitirudi jada, eta gaur hazi zenbait atera da lurretik, sail hegian papertxo bat lur mokor baten pean utzia izan ez bagenu ez baikinen berehala oroitu zer erein genuen hor.

30 Eta goxoa da amestea, fitexko, sukaldeko mahai hegian, igande goiz apalez, eguerdiko apairuko, nola bihikatuko dituzun zure ilar biribil teka bildu berriak, azazkal xorrotxaren koskaz errendiaraziak, hazi berde bixiak ontziratu arau hauen berdura usain fresko lerdena gela osora ziliporta tipitan hedatuko delarik.

Bea Salaberri, *Baionak ez daki*, 2015.

¹ ihintzez

² dibertigarria

³ suntsitu

⁴ jostatzea

Document 2

Bizilagunen kooperatibak, ezagupen eske

Euskal Hirigune Elkargoko azken batzordean, bizilagun kooperatiben egoera plazaratu zuen Nicole Etxamendi hautetsi itsasuarra; etxebizitza kolektibo horiek garatzeko bidean, urrats handia litzateke instituzioaren ezagupena.

Martxoaren 23ko Euskal Hirigune Elkargoaren batzordean, trantsizio energetikoaren eta etxebizitza politikaren eztabaidaren harira, bizilagunen kooperatiben gaia agertu zen. Zehazki, Nicole Etxamendi Itsasuko hautetsiak plazaratu zuen etxeak kolektiboki biziartzeko formula horren inguruko galdera beste

5 ordezkarien aitzinean: etxebizitza pribatuaren arautegi aldaketaz baliatu nahi zuen galdetzeko kooperatiba horien ezagupena onar dezala elkargoak. Irisarrin sortu zen Ipar Euskal Herriko lehena, baina badira gehiago sortze bidean, eta elkargoaren ezagupenak erraztu dezake haien garapena.

Euskal Herrian etxeak izan duen "funtsari" lotzen dira kooperatiba horietan, 10 Etxamendik batzordean erran zuenez: "Ez AEBetatik ekarri etxe indibidualaren ideari, baizik eta etxebizitza partekatuari, zeinetan belaunaldi desberdinak eguneroko aktibitateetan elkartasunean bizi ziren". Etxebizitza xede kolektibo horiek, Bordeleko (Okzitania) eskualdean adibidez, ezagupen ofiziala badute; elkargoaren etxebizitza arautegiak ezagupena ematen badie, kooperatiba horiek gaur egun ez dituzten 15 laguntzak kausi litzakete.

[...]

Irisarriko Etxegoinberria aipatu zuen hautetsi itsasuarra elkargoko hitzaldian: bizilagunen kooperatiba horretan, lau familiaren artean etxalde bat erosi, eta berritu zuten. Horietan da Jokin Zaldunbide, eta gogoan du elkargoko hautetsi zenbaitengana jo zutelarik, kooperatibaren printzipioa ez zela ulertu: "Halako muntaketa batek 20 ondasuna arrunt babesten du: erran nahi du espekulaziotik kentzen dela kooperatibari esker. Ezin da pertsonalki irabazirik egin. Horretan dugu borroka handia, behar diegu esplikatu nolaz gure proiektuak hori babesten duen".

2014ko Alur legearekin, Frantziako Gobernuak ezagupena eman zien bizilagunen kooperatibei. Bankuan mailegu bat egiteko ala etxeak berritzeko ematen 25 diren diru laguntzen eskubidea ukaiteko, berriz, elkargoak ere ezagupen instituzionala onartu behar lieke.

Bestalde, Zaldunbidek uste du etxebizitzaren krisiaren garaian, alternatiba egokia izan daitekeela. "Barnealdean segidarik ez duten etxaldeentzat aterabide bat izan daiteke: etxaldea zatikatzen ahal da lau edo bost apartamentutan, jabeek xoko 30 bat atxikitzen ahalko lukete, lurra zatitu eta gazteei instalatzeko aukera eman". [...]

Joanes Etxebarria, *Ipar Euskal Herriko Hitza*, 2024-04-14.



Iturria: <https://www.hegalaldia.org/une-rentree-en-eusko/>